

**ORDENANTZA FISKALA, BAIMENAK EMATEKO, ETA INGURUMENA BABESTEAREN
ETA JARDUERA KALTEGABEEN ALORREAN KONTROLEKO ADMINISTRAZIO
JARDUERAK EGITEKO TASAK ARAUTZEN DITUENA**

5. ORDENANTZA

OINARRIA

1. artikulua. Ordainarazpen hau ezarri da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen lehenbiziko tituluko IV. kapituluko 7. atalean xedatutakoaren arabera, eta lege beraren 12. artikuluan jasotzen den baimenari jarraituz.

ZERGA-EGITATEA

2. artikulua. Zergapeko egintza da Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legearen ondorioz jarduera sailkatuaren udal lizentzia behar duten instalazio eta jardueren ezarpenari, ustiapenari, lekuz aldatzeari, nabarmen aldatzeari, berriz irekitzeari eta abian jartzeari dagozkien zerbitzu tekniko eta administratiboak ematea, baita, jarduera kaltegabeen kasuan, udal lizentzia behar dutenei dagozkienak ere; orobat, kontrol jarduera administratiboak, lizentzia emantzat jotzen den kasuetan edo lizentziaren ordean erantzukizuneko aitortpena edo aurretzeko komunikazioa aurkeztu behar bada, zehatz-mehatz:

- a) Jarduera lizentzia.
- b) Irekitzeko lizentzia.
- c) Irekitzeko lizentziaren aldaketa.
- d) Instalazio eta lokalak berriz irekitzeko baimena.
- e) Jarduera hasitakoan edo irekitakoan kontrolak egitea, lizentzia emantzat jotzen den kasuetan edo lizentziaren ordean erantzukizuneko aitortpena edo aurretzeko komunikazioa aurkeztu behar bada.

ORDAINDU BEHARRA

3. artikulua. Tasa lizentzia eskatzen denean sortuko da edo erantzukizuneko aitortpena edo aurretzeko komunikazioa aurkezten denean. Ez da tasarik sortuko interesdunak eskabideari uko egiten badiu lizentzia emateko udal erabakia hartu baino lehen. Ez da ordaindu beharrik izanen baldin jarduera hasteari uko egiten zaiola komunikatzen bada jardueraren kontrola bukatzen duen udal ebazpena eman aurretik.

SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua. Ordenantza honetan ezarritako tasak ordaindu behar dituzte pertsona fisiko eta juridikoek, baita, nortasun juridikorik ez izan arren, batasun ekonomikoa edo aparteko ondarea osatzen duten entitateek ere, baldin haien izenean lizentzia eman, aldatu edo berraztertzen bada.

TARIFAK

5. artikulua. Ordenantza honen eranskinean jaso dira aplikatuko diren tarifak.

KUDEAKETA ARAUAK

6. artikulua. Jarduera baterako baimena erdietsi edo jarduera abiarazi nahi dutenek Herriko Etxean aurkeztuko dute behar den lizentzia eskabidea, aurretiazko komunikazioa edo erantzukizuneko aitorpena, lokalean egin beharreko jarduera edo jarduerak eta lokalaren kokapena zehazten dituztela, dagozkien udal ordenantzetan eskatutako dokumentazioarekin batera.

7. artikulua. 1. Ordenantza honetan ezarritako tasak autolikidazioan ordaintzeko eskatuko da, lizentzia emantzat jotzen den kasuetan edo lizentziaren ordeztu erantzukizuneko aitorpena edo aurretiazko komunikazioa aurkeztu behar bada. Gainerako kasuetan, zerga arloko administrazioak egingen du behin-behineko likidazioa.

2. Autolikidazioaren araubidea aplikatzen den kasuetan, subjektu pasiboek kasuan kasuko tasen autolikidazioa egin beharko dute udal administrazioak eskura jartzen dituen inprimaketan. Betebehar hori ez betetzea tributu arloko arau-haustea da, Ordenantza fiskal Orokorraren III. kapituluaren xedatzen denaren arabera zehazten ahal dena.

3. Komunikazioarekin edo aitorpenarekin batera, autolikidazio agiria aurkeztuko da, behar bezala bete, eta tasak ordaindu izanaren egiaztagiria jarduera hasitakoan edo irekitakoan kontrolak egiteagatik, lizentzia emantzat jotzen den kasuetan edo lizentziaren ordeztu erantzukizuneko aitorpena edo aurretiazko komunikazioa aurkeztu behar bada.

8. artikulua. 1. Udalaren Administrazioak egiaztatu egingen du autolikidazioak ordenantza honetako arauak zuzen aplikatuz egin direla eta, beraz, kalkulaturako tarifa arau horien emaitza dela.

2. Udalaren Administrazioa autolikidazioekin ados ez badago, likidazioak egingen ditu, gaizki aplikaturako kontzeptuak edo datuak eta akats aritmetikoak zuzenduta, berandutzaren interesak kalkulatuak ditu eta behar diren zehapenak ezarriko ditu. Orobat, subjektu pasiboak deklaratu ez dituen zergapeko egintzen likidazioa egingen du.

9. artikulua. Lizentzia iraungiz gero, jardueran aritu nahi duten interesdunek lizentzia berria eskatu beharko dute, eta dagokion tasa ordaindu.

ARAU-HAUSTEAK

10. artikulua. Arau-hausteei eta zehapenei dagokien orotan, ordenantza fiskal orokorrean xedatutakoari jarraituko zaio.

I. epigrafea.

Jarduerarako lizentzia eta jarduerarako lizentziaren funtsezko aldaketa eta berrikuspena, ondoko kontrola 448/2014 Foru Aginduaren II. eranskinean sartutako jardueretan:

–Establezimendu edo instalazioak, 75 m² arte: 627,69 euro.

–75 m²-tik 100 m²-ra bitarte: 782,04 euro.

–100 m²-tik 250 m²-ra bitarte: 1.049,58 euro.

–250 m²-tik 500 m²-ra bitarte: 1.255,38 euro.

–500 m²-tik 1.000 m²-ra bitarte: 1.574,37 euro.

–1.000 m² baino gehiago: 1.996,26 euro.

II. epigrafea.

Irekitzeko lizentzia, irekitzeko lizentziaren aldaketa, irekitakoan kontrolak egitea, lizentzia emantzat jotzen den kasuetan edo lizentziaren ordean erantzukizuneko aitortzea edo aurretiazko komunikazioa aurkeztu behar bada:

–Establezimendu edo instalazioak, 75 m² arte: 576,24 euro.

–75 m²-tik 100 m²-ra bitarte: 679,14 euro.

–100 m²-tik 250 m²-ra bitarte: 782,04 euro.

–250 m²-tik 500 m²-ra bitarte: 884,94 euro.

–500 m²-tik 1.000 m²-ra bitarte: 1.049,58 euro.

–1.000 m² baino gehiago: 1.337,70 euro